

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

NEKAZARITZA SAILA

341/2025 Foru Agindua, urriaren 17koa. Onespena ematea “*Erwinia amylovora*” bakterioak (su gorrina) infestatutako zonaren deklarazioari eta Arabako Lurralde Historikoan tanpoi zona bat ezartzeari

Su gorrina landareen gaixotasun larria da, “*Erwinia amylovora*” bakterioak sortua, eta batez ere arrosazeoen familiako landareei eragiten die. Ezartzen denean, galera ekonomiko handiak eragiten ditu pipitadunen fruta arbolen ustiatzeetan, oro har, eta sagarrondo eta udareondoetan, bereziki, bai eta familia horretako landare apaingarrien sektorean ere (*Chaenomeles Lindl.*, *Cotoneaster Ehrh.*, *Crataegus L.*, *Cydonia Mill.*, *Eriobotrya Lindl.*, *Malus Mill.*, *Mespilus L.*, *Pyracantha Roem.*, *Pyrus L.*, *Sorbus L.*, baina *Sorbus intermedia* (Ehrh.) Pers, eta *Stranvaesia Lindl.* izan ezik).

Sortzen dituzten kalteen larritasuna areagotu egin daiteke barreiatzeko duten erraztasunagatik ugaltzeko landare materialaren bidez edo laborantza lanetan erabilitako ebaketa tresnen bidez; bektore naturalen bidez, hala nola intsektu polinizatzaileak, haizeak garraiatutako aerosolak (likidoa, euriak edo irrigazioek sortuak, eta solidoak, landare gaixoaren gainean lehortutako bakterio exudatuetatik datozenak); eta bakterioak landare organoen gainazalean gutxienez hogeita hamar egunez bizirik iraun dezakeelako eta landare ostalariaren barruan gutxienez urtebetez egon daitekeelako, ageriko sintomarik eragin gabe.

Erwinia amylovora Batzordearen 2019/2072 (EB) Exekuzio Erregelamenduaren III. eranskinan (Eremu Babestuko Berrogeialdia) jasota dago, eta Araba bakterio horren zona babestutako bat da.

Mendien Zerbitzuak 2025eko abuztuaren 25eko ALHAOn Bastidako udalerrian deklaraturako fokuari eta prentsan argitaratzearen ondorioz, Aiarako udalerriko pertsona partikular baten abisu bat jaso zen, zeinak udare baten argazkiak partekatu baitzituen, balizko sintomekin. Laginak irailaren 15ean hartu ziren, eta Neikereko landare analitiken laborategiak positibo eman zuen irailaren 18an. Valentziako Erreferentziako Laborategi Nazionalak urriaren 2an berretsi zuen emaitza hori.

Testuinguru horretan, 2021-2025 aldirako Euskal Autonomia Erkidegoko Landare Osasunaren Kontrol Ofizialerako Programaren esparruan, eta uztailaren 9ko 1201/1999 Errege Dekretuaren arabera (arrosazeoen su gorrina desagerrarazteko eta kontrolatzeko programa nazionala ezartzen duena), Zuzeneko Laguntzen Zerbitzuak zerrenda bat zehaztu du babestu gabeko eremuetatik kilometro bat baino gutxiagora dauden labore ostalari adierazitako lurzatietan. Tarte horretan urtean bi lagin hartzen dira.

Urteko bigarren laginean, positiboa izan da Aramaion irailaren 23an hartutako lagin bat, eta urriaren 3an jaso zen Neikereko landare analitiken laborategiaren jakinarazpena.

Bi positiboen arteko distantzia eta bien arteko loturarik eza kontuan hartuta, bi foku independentzat hartu dira, eta Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioari jakinarazi zaizkio urriaren 6an Aiarakoa eta urriaren 7an Aramaiokoa.

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/2031 (EB) Erregelamenduan eta arrosazeoen su gorrina desagerrarazteko eta kontrolatzeko programa nazionala ezartzen duen uztailaren 9ko 1201/1999 Errege Dekretuan xedatutakoa kontuan hartu da.

Beraz, nahitaezko txostenak ikusita eta bat etorritik Arabako Foru Aldundiaren 2023-2027 legegintzaldirako sailak zehazten dituen diputatu nagusiaren ekainaren 30eko 152/2023 Foru Dekretuan xedatutakoarekin eta harekin lotutako diputatu nagusiaren ekainaren 28ko 78/2024 Foru Dekretuarekin, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Onestea «*Erwinia amylovora*» bakterioak (su gorrina) kilometro bateko erradiao duen bi tapoi zonaren adierazpen ofiziala. Lehenengoak 314,16 ha ditu Aiarako udalerrian eta bigarrenak 307,53 ha Aramaion.

Bigarrena. Mugatutako zonan, jarraipen intentsiboa egingo da bi urtez jarraian, fokua desagerrarazi dela pentsatu aurretik, eta 1201/1999 Errege Dekretuaren 6. artikuluan ezarritako neurriak aplikatuko dira, bereziki:

Debekatuta dago landare edo landare zati ostalarien garraioa segurtasun zonatik kanpo, polinizaziorako polen aktiboa barne, fruituak eta haziak izan ezik, autonomia erkidegoaren berariazko baimenik gabe.

Debekatuta dago gaixotasunaren ostalari izan daitezkeen landareak landatu edo birlandatzea, segurtasun zona indarrean dagoen bitartean, autonomia erkidegoaren berariazko baimenik gabe.

Nahitaezkoa da inautetako trenak desinfektatzea ale bakoitzean eragiketa egin ondoren.

Hirugarrena. Foru agindu honek onetsi eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak, ALHAOn argitaratzen den eguna gorabehera.

Laugarrena. Foru Agindu honek administrazio bidea amaitzen du, eta beronen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkeztu ahal izango da, bi hilabeteko epean jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, Vitoria-Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegian, edo, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsioa, hilabeteko epean, Nekazaritza Saileko foru diputatuari. Hori guztia, honako hauek xedatutakoarekin bat etorritik: Administrazioarekiko Auzibideen Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46.1. artikulua eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. artikulua.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko urriaren 17a

Nekazaritza Saileko foru diputatua

NOEMÍ AGUIRRE QUINTANA


Nekazaritza zuzendaria

DAVID FERNÁNDEZ SARABIA



I. ERANSKINA

Aiarako udalerriko tanpoi zonaren xehetasuna



Lerro berdeak tanpoi zona mugatzen du Arabajo Lurralde Historikoan



II. ERANSKINA

Aramaioako udalerriko tanpoi zonaren xehetasuna



Gorriz koloreztatutako zona, Gipuzkoako Lurralde Historikoarekiko mugak ebakita